



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## Deialdia

# UPV/EHUk bosgarren Tipi-tapa ibilaldia antolatu du hilaren 27an

Pertsona guztiei zabaldutako ibilaldi ez-lehiakorra  
Basurtuko ospitalean hasi eta Erandion bukatuko da

Izen ematea ezinbestekoa da eta hilaren 25era arte egin daiteke

UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak 'Unibertsitatea Tipi-tapa osasunez' ibilaldiaren bosgarren edizioa antolatu du hilaren 27rako, igandea. Ibilaldia ez da lehiaketa izango eta mundu guztiari irekita dago, helburua UPV/EHU gizartera hurbiltzea baita. Hortaz, ibilbidea (15 kilometrokoa luzea, eta 6,5ekoa laburra, 10 urtetik beherako umeentzat) Bilbon hasi eta Bizkaiko Campuseko kiroldegian (Leioa-Erandio esparrua) bukatuko da. Beraz, Bilbon eta Leioa-Erandion dauden ikastegiak lotuko ditu, bertako ingurunea ezagutaraziz.

Hain zuzen, ibilbidea goizeko 9.30etan hasiko da Medikuntza Fakultatearen Basurtuko Ospitaleko irakasgunetik (Gurtubay kalea z/g) (ibilbide laburrerako 10.15etan Alde Zaharreko EuskoTreneko geltokian edo 10.30etan Sondikako EuskoTreneko geltokian) eta hiru ordu eta erdi beranduago bukatuko da Leioa-Erandioko campuseko polikiroldegian. Hortik autobus zerbitzu doakoa egongo da 12.30etatik 14.30ak arte Astrabuduako metro geltokiraino.

Izen ematea doakoa eta ezinbestekoa da eta apirilaren 25era arte egin daiteke Bizkaiko campuseko Kirol Zerbitzuko bulegoetan (94-6015894 edo 94-6013162 9.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 16.30etara edo [rovdepor@lg.ehu.es](mailto:rovdepor@lg.ehu.es) helbide elektronikoan). Ibilbide osoa egingo duten UPV/EHUko ikasleek aukera askeko kreditu bat lortu ahal izango dute. Iazko Tipi-tapan 1.600 pertsonak hartu zuten parte.

**UPV/EHUko KOMUNIKAZIO BULEGOA (94-6012065 / [prentsa@ehu.es](mailto:prentsa@ehu.es))**